

EUSKELEC : SEGURTASUN ETA EROSOTASUN SISTEMA

Laburpena

Atal honetan, Euskelec kotxean aurkituko ditugun segurtasun eta erosotasun elementu desberdinak landuko ditugu. Horretarako, elementu hauek zehaztu eta deskribatu egingo dira.

Behin kotxean erabiliko diren elementuak ezagunak direla, ibilgailua eraikitzeko daukagun arautegiaz baliatuta, segurtasun eta erosotasun elementuak hauek aukeratu eta kotxean muntatuko ditugu.

Ikaskuntza Emaitzak

Mod.5/EMSE/0458 Segurtasun eta erosotasun sistemak

IE5.1 Segurtasun- eta erosotasun-sistemen osagaiak, kokapena eta funtzionaltasuna deskribatu.

IE5.7 Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak aplikatu.

Egin beharreko lanak

Orokorra:

EMSE moduluan, gidariaren eserleku egokia aukeratu eta modu seguruan autoaren egituran muntatu beharko da. Segurtasun uhala aukeratu eta autoan kokapena exekutatu.

Ikasgaia lantzen:

1. Ibilgailuetan eserlekua, airbag eta tenkagailua betetzen duten funtzioa azaldu. Elementu bakoitzaren deskribapena eta funtzionamendua azaldu.
2. Tenkagailu motak aipatu. Hiru eta lau puntuko tenkagailuen arteko desberdintasunak aipatu (Funtzionamendu eta segurtasun desberdintasunak) .” <https://arnesesfia.com/> ”

Euskelec kotxearen segurtasun eta erosotasun elementuak definitu, kontutan hartu behar dira Euskelec lehiaketaren araudiak. Atal honetan talde bakoitzak kotxean muntatuko diren elementu desberdinak aukeratuko ditu eta berain kokapena zehatuko du. Behin lana eginda dagoela talde bakoitzak bere aukeraketa aurkeztuko du eta partaideen artean aukerarik egokiena hautatuko da eta kotxean kokatu izango da.

1. Kotxean muntatuko den eserlekuaren definizioa egin behar da. Eserlekua nola fabrikatu den(Xabi irakaslearekin ikusiko da), bere kokapena zehaztu, neurriak eta kotxean nola finkatu. kontutan hartu beharko dira lan hau burutzeko gidariaren kokapena eta kotxearen beste elementuen kokapena, neurriak hartu eta gidariarentzako aproposak izatea, krokis baten bitartez lagundu neurriak zehazteko.
2. Kotxean erabili beharreko tenkagailua aukeratu. Araudia jarraituz, tenkagailu bat aukeratu eta bere finkapena kotxean zehaztu beharko da. Krokis baten bitartez baliatu elementuak nola kokatuko diren zehazteko.

